


# Prentsa Txostena / Dossier de Prensa

# INTRODUCCIÓN
# 38 EDICIÓN

La XXXVIII Edición de la Feria de Artesanía "Ereintza" del País Vasco de Errenteria se celebrará del viernes día 29 de abril al domingo 1 de mayo. El lugar de celebración será la sala polivalente "Jose Luis Caso" situada en el Centro Cultural Merkatuzar de Errenteria (Gipuzkoa).

El horario de visita de la Feria será de 11:00 h. a 14:00 h. de la mañana y de 16:30 a 20:30 horas de la tarde.

Organizado por Ereintza Elkartea y Artiola Artisautzaren Gunea, y el patrocinio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y el Ayuntamiento de Errenteria, se cuenta igualmente con la colaboración de Kutxa Fundazioa.

La Feria de Artesanía, en esta nueva edición, presenta una variada y amplia participación de talleres artesanales procedentes de todo Euskal Herria. Serán en total 44 los talleres que expondrán sus productos, acudiendo mayoritariamente de Gipuzkoa, siendo el resto de Bizkaia, Araba, Navarra, Iparralde y del resto del Estado.

La Feria de Errenteria, tanto por su antigüedad como por su organización, se sitúa por derecho propio dentro del circuito de las ferias de artesanía más importantes del País. Es por tanto un buen escaparate para realizar ventas directas con el público asistente, además de constituir su presencia en la feria, un sello de calidad para los talleres participantes.

# *SARRERA*
# *38. AZOKA*

*Errenteriako "Ereintza" Euskal Herriko XXXVIII. Artisautza Azoka apirilaren 29etik maiatzaren1era egongo da ikusgai, ostiraletik igandera. "Jose Luis Caso Aretoa" izeneko erabilera anitzeko gelan antolatuko da, Errenteriako (Gipuzkoa) Merkatuzar Kultur Gunean.*

*Azokaren ordutegia hauxe izango da: 11:00etatik 14:00etara, goizez, eta 16:30etik 20:30era, arratsaldez. .*

*Azoka Ereintza Elkarteak eta Artiola Artisautzaren Guneak antolatzen dute, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Errenteriako Udalak babestuta. Kutxa Fundazioaren babesa ere jasotzen du.*

*Aurtengo edizioan ere parte-hartzaile asko eta askotarikoak bilduko ditu Eskulangintza Azokak, Euskal Herriko txoko guztietatik etorriak. Guztira 44 artisauk erakutsiko dituzte beren produktuak. Gehienak gipuzkoarrak izango dira; gainerakoak, Bizkaikoak, Arabakoak, Nafarroakoak, Iparraldekoak eta Estatuko beste toki batzuetakoak.*

*Errenteriako azokak garrantzi handia du Euskal Herriko artisautza-azoken artean, bai bere antzinatasunagatik, bai bere antolamenduagatik. Hori dela eta, erakusleiho aparta da artisauentzat, produktuak zuzenean saltzeko aukera eskaintzen baitie,bere parte-hartze soila kaliatezko zigilu bat izaten delarik bere tailerrentzat.*


Juan de Olazabal kalea, 23
20100 Errenteria
Tel/Fax: 943 52 65 53
eskulangintza@ereintza.com
www.ereintza.com
www.artiola.org

En este sentido, no hay que olvidar que la artesanía es también una forma de vida, y que el colectivo artesano apuesta por un modelo basado en la creatividad, mediante la intervención manual y el conocimiento técnico en la fabricación de sus productos.

*Ildo horretatik, ez dugu ahaztu behar artisautza bizimodu bat ere badela. Artisauek sormenean oinarritutako bizimodua daramate; euren eskuak eta ezagutza teknikoak erabiltzen dituzte hainbat eta hainbat produktu egiteko.*

La Feria de Artesanía de Errenteria tiene como objetivo mantener el prestigio ganado durante sus 37 años de recorrido, mediante una cuidada selección de los talleres participantes. Y que las personas que acuden a visitarla lo hagan sin grandes aglomeraciones, debido al interés que les despierta la artesanía. Por esta razón mantendrá un precio simbólico como entrada al recinto, que será el mismo que se viene manteniendo en los últimos años, es decir de 2,50 euros persona adulta.

*Errenteriako Artisautza Azokaren xedea da 37 urteko ibilbide luzean lortutako sonari eustea, tailer parte-hartzaileak arretaz aukeratuta. Horrez gainera, bisitariak azokan lasai eta pilaketarik gabe ibiltzea lortu nahi du, artisautzaz goza dezaten. Hortaz, azokara sartzeko prezio sinboliko bat ezarri da, eta helduek 2,50 euro ordaindu beharko dute, azken urteetan bezalaxe.*

# LA TRANSICIÓN DE EREINTZA A ARTIOLA

En este punto queremos explicar algunas de las claves que definen las necesidades de traspaso por parte de Ereintza a Artiola, de la Feria de Artesanía del País Vasco de Errenteria.

Durante el periodo 2007-08, Ereintza abrió un proceso de reflexión para "Repensar la Feria de Artesanía":
- Se hacía necesaria una "presencia continuada" de la artesanía que le diera visibilidad.
- La "profesionalización" del sector era un eje de trabajo imprescindible.
- La idea de un Centro de Referencia de la Artesanía en Errenteria se presentaba como un elemento aglutinador de ambas necesidades.

De este modo en 2010, junto con Gabiltza, Lur y Artisau, nace el proyecto de Artiola. Un proyecto que desde su origen contempla la asunción de la Feria como un escaparate público de los valores que está impulsando para el sector artesanal.

Cambiar, supone siempre salir de la zona de confort. Esto precisamente, ha sido una de las constantes y de las fortalezas en la evolución, a lo largo de estos 37 años, de esta Feria. Hasta llegar a lo que creemos puede resultar un punto de inflexión no ya para la Feria misma, sino para la Artesanía del País Vasco

Este traspaso de la organización de la Feria, supone el trabajo conjunto de un alto porcentaje del tejido asociativo de la Artesanía del País Vasco a través de Artiola.

Supone asimismo una línea estratégica con el fin de crear y reinventar un escenario que exhiba los criterios, los valores, y las líneas de actuación de Artiola, en su afán de visibilizar el crecimiento, desarrollo y expansión de la Artesanía de Euskal Herria, con unas condiciones y unos criterios exigentes de calidad y excelencia.

# *TRANTSIZIOA: EREINTZATIK ARTIOLARA*

*Puntu honetan azaldu nahi dugu zergatik den beharrezkoa Ereintzak Artiolaren esku uztea Errenteriako Euskal Herriko Eskulangintza Azoka.*

*2007-2008an, Ereintzak gogoeta-prozesu bat abiarazi zuen, "Eskulangintza Azoka aztertzeko":*
*-Beharrezkoa zen artisautzaren "presentzia jarraitua", jarduerak ikusgaitasuna izan zezan.*
*-Sektorearen "profesionalizazioa" ezinbesteko lan-ardatza zen.*
*-Errenterian Artisautzaren Erreferentziazko Zentro bat sortzeak bi behar horiek asetzen zituen.*

*Hala bada, 2010ean, Gabiltza, Lur eta Artisau elkarteekin batera sortu zen Artiola proiektua. Artiolak hasiera-hasieratik onartu zuen Azoka erakusleiho ona zela artisautzaren sektorean sustatu nahi zituen balioak ezagutzera emateko.*

*Aldaketek beti dakarte ordura arte lortutako erosotasuna galtzea. Baina aldaketak, hain zuzen ere, etengabeak izan dira Azokaren 37 urteko bilakaeran, eta haren indargune izan dira, gainera. Eta oraingoa, gure ustez, inflexio-puntua izan daiteke, Azokarentzat ez ezik, baita Euskal Herriko eskulangintzarentzat ere.*

*Azokaren antolakuntza eskualdatzeak berekin ekarriko du Euskal Herriko eskulangintzako sare asoziatiboaren ehuneko handi batek elkarrekin lan egitea Artiolaren bidez.*
*Halaber, beharrezkoa da ildo estrategiko bat ezartzea, xedetzat izango duena Artiolak Euskal Herriko artisautzaren hazkuntza, garapena eta hedapena ikusarazteko erabiltzen dituen irizpide, balio eta jardute-ildoen agertoki bat sortzea eta berreraikitzea, kalitate eta bikaintasunerako baldintza eta irizpideekin*

EREINTZA elkartea
artiola
Juan de Olazabal kalea, 23
20100 Errenteria
Tel/Fax: 943 52 65 53
eskulangintza@ereintza.com
www.ereintza.com
www.artiola.org





## EL PROCESO DE SELECCIÓN DE ARTESANOS PARA LA FERIA

El proceso de selección de los talleres artesanos que exponen en la Feria es una de las cuestiones que mas ha cuidado Ereintza Elkartea, coincidiendo en este sentido con los valores y criterios de excelencia que quiere impulsar Artiola.

Estos criterios tienen en cuenta los siguientes aspectos generales: la calidad e innovación de los productos, la diversidad de oficios, la rotación anual de los talleres participantes y la incorporación de nuevos, y la representación equilibrada de los diferentes territorios de Euskal Herria. Además, se hace un gran esfuerzo en traer aquellos talleres significativos que puedan dar un plus de calidad a la feria.

Para esta edición, como ya se ha señalado serán 44 los talleres artesanos que nos visitarán, siendo un total de 17 los que vienen por primera vez a la Feria de Artesanía de Errenteria, lo que supone un 38% del total de participantes. Señalar también que solo 14 talleres de la edición del 2015 repiten este año, lo que supone a su vez una importante rotación de artesanos y oficios.

## MATERIALES Y EXPOSITORES

Los 44 talleres que nos visitan este año proceden de:

Gipuzkoa (22)
Bizkaia (4)
Nafarroa (5)
Araba (6)
Iparralde (1)
Otras comunidades (6)

## *AZOKARAKO ARTISAUEN HAUTAKETA-PROZESUA*

*Azokan parte hartuko duten artisauen aukeraketa mimo handiz egin du beti Ereintza Elkarteak. Zentzu horretan bat eginaz Artiolak bultzatzen dituen bikaintasunaren balio eta irizpideekin.*

*Irizpide horiek alderdi orokor hauek hartzen dituzte kontuan: produktuen kalitatea eta berrikuntza, lanbideen aniztasuna, parte hartzen duten tailerren txandatzea eta berrien presentzia, eta Euskal Herriko lurralde guztien ordezkaritza. Era berean, ahalegin handia egiten da azokari kalitatezko plusa emango dioten tailer bereziak ere ekartzeko.*

*Lehen esan dugun bezala, 44 eskulangintza-lantegik parte hartuko dute aurtengo edizioan, eta horietako 17 lehenbiziko aldiz izango dira Errenteriako Azokan; beraz, parte-hartzaile guztien % 38 berriak izango dira. Nabarmentzekoa da 2015. urteko edizioan izandako 14 tailer bakarrik etorriko direla aurten, eta horrek esan nahi du berrikuntza eta txandakatze aipagarria izango dela artisauetan eta langintzetan.*

## *MATERIALAK ETA ERAKUSLEAK*

*Hona hemen aurten gurekin izango ditugun 44 erakusleen jatorria:*

*Gipuzkoa (22)*
*Bizkaia (4)*
*Nafarroa (5)*
*Araba (6)*
*Iparralde (1)*
*Espainiako Estatuko beste erkidego batzuk (6)*

Entre los materiales que estarán presentes este año están:

Madera (6 expositores)
Hierro y Metal: (3 expositores)
Vidrio: (4 expositores)
Barro y Piedra: (4 expositores)
Textil: (8 expositores)
Cuero: (5 expositores)
Papel y cartón: (5 expositores)
Joyería Bisutería: (5 expositores)
Artesanías varias: (3 expositores)

La organización recuerda siempre a los talleres participantes que desarrollar "in situ" la actividad en alguna de las fases de elaboración del producto durante la Feria, constituye un elemento que ayuda a mejorar la relación con el cliente y supone un añadido de atracción para el conjunto de la Feria y para el público visitante.

## INNOVACIONES Y TALLERES DESTACADOS

La primera innovación a destacar es la decoración de la entrada principal de la Feria.
Se trata de una instalación realizada conjuntamente, a base de elementos reciclados, por cuatro artesanas-artistas:
PALEIKE, muebles realizados a partir de palets reciclados, transformando un objeto desechado en el objeto deseado.
AINHOA MUJIKA, muebles y objetos realizados con papel de publicidad y periódico, tomando como base la técnica de la cestería tradicional.
IDOIA ELOSEGI, piezas escultóricas y lámparas de pié, techo y apliques forradas de papel.
DOLO NAVAS, artista polifacética con obra en vidrio y textil reciclados.

*Aurten, material hauek izango ditugu ikusgai:*

*Zura: (6 erakusketari)*
*Burdina eta metala: (3 erakusketari)*
*Beira (4 erakusketari)*
*Buztina eta harria: (4 erakusketari)*
*Ehuna: (8 erakusketari)*
*Larrua: (5 erakusketari)*
*Papera eta kartoia: (5 erakusketari)*
*Bitxigintza: (5 erakusketari)*
*Askotariko eskulangintzak: (3 erakusketari)*

*Antolatzaileek beti gogorarazten diete parte parte-hartzaileei Azokan bertan produktuaren faseetakoren bateko lana gauzatzea bezeroekin harreman estuagoa lortzeko elementu bat dela, eta aldi berean oso erakargarria dela bai Azokarentzat, bai bisitarientzat.*

## BERRIKUNTZAK ETA NABARMENTZEKO LANTEGIAK

*Nabarmendu beharreko lehen berrikuntza Azokaren sarrera nagusiko dekorazioa da.*
*Instalazioa elementu birziklatuak erabiliz sortu dute lau artisau-artistek:*

*PALEIKE. Palet birziklatuz altzariak egiten ditu, hondakin bat objektu desiragarri bilakatuz.*
*AINHOA MUJIKA. Publizitateko eta egunkarietako papera erabiliz altzariak eta objektuak sortzen ditu, saskigintza tradizionala oinarritzat hartuta.*
*IDOIA ELOSEGI. Paperez egindako eskultura-piezak eta zutikako nahiz sabaiko lanparak eta aplikeak sortzen ditu.*
*DOLO NAVAS. Artista polifazetikoa da, eta beira eta ehun birziklatuak lantzen ditu.*


Juan de Olazabal kalea, 23
20100 Errenteria
Tel/Fax: 943 52 65 53
eskulangintza@ereintza.com
www.ereintza.com
www.artiola.org

LUIS PARADES
Artesano asturiano que trabaja el vidrio desde 2003, es un gran creador que domina diferentes técnicas vidrieras. Ha obtenido varias distinciones, entre las que se encuentran la obtención del 1º premio de diseño de Getxo y del 2º premio pieza única "La Rosaleda de Artesanos" de Oviedo. Finalista en la categoría Innova de la V edición de los Premios Nacionales de Artesanía, su trabajo nace desde la experimentación y la búsqueda de nuevos lenguajes expresivos con el vidrio como materia base y su diálogo con los metales como elemento de acompañamiento y sustentación. Luis Parades, se inscribe en la vanguardia plástica más radical de nuestro actual panorama artístico.

*LUIS PARADES*
*2003az geroztik beira lantzen duen artisau asturiarra. Sortzaile handia da, eta hainbat teknika menderatzen ditu. Zenbait aipamen jaso ditu, hala nola Getxoko diseinuko 1. saria eta pieza berdingabearen 2. saria Oviedoko "La Rosaleda de Artesanos" azokan. Finalista izan da Artisautzako Sari Nazionalen V. Edizioan, Innova kategorian. Haren lanaren jatorria esperimentazioa eta adierazpen-lengoaia berrien bilaketa dira, betiere beira erabiliz oinarrizko materia gisa eta metalak erantsiz, elementu lagungarri eta euskarri gisa. Luis Parades egungo panorama artistikoaren abangoardia plastiko muturrekoenean kokatu behar da.*

IMANOL OSA
Nacido en Zumaia y residente en Barcelona. Estudia diseño de interiores en la escuela EINA de Barcelona y comienza a trabajar en el campo artístico reutilizando objetos habituales para crear piezas únicas. Desde un primer momento, su obsesión fue poner luz a todo lo que encontraba, lo que se transformó en el diseño de lámparas y su producción. Define su trabajo como un homenaje al trabajo artesano, pero desde una perspectiva más actual, incorporando el reciclaje y la reutilización de materiales ya existentes.

*IMANOL OSA*
*Zumaian jaio zen, eta Bartzelonan bizi da. Barne-diseinua ikasi zuen Bartzelonako EINA eskolan, eta artearen munduan murgildu zen, ohiko objektuak berrerabili eta pieza berdingabeak sortuz. Hasiera-hasieratik, argia ipini nahi izan zion aurkitzen zuen orori, eta, ondorioz, lanparak diseinatzen eta fabrikatzen hasi zen. Imanolek dioenez, bere lana artisauen lanari egin nahi dion omenaldia da, baina ikuspegi berriago batetik, birziklatzea eta lehendik erabilitako materialen berrerabilpena erantsiz.*

TILOMAR
Taller asturiano, llevan 30 años trabajando el cuero. Poco a poco, a base de formación e investigación, han conseguido posicionarse en el mercado en tiendas multimarca de nivel medio alto en España y en el extranjero. Su producción de bolsos se realiza íntegramente en el taller tanto a nivel de diseño como de producción.

*TILOMAR*
*Asturiar lantegi honetan 30 urte daramatzate larrua lantzen. Pixkanaka, prestakuntzari eta ikerkuntzari esker, Espainiako maila ertain-altuko marka ugariko dendetan eta atzerrian saltzea lortu dute. Poltsak lantegian ekoizten dituzte oso-osorik, bai diseinuari dagokionez, bai fabrikazioari dagokionez. Haien helburua:*

Su objetivo: sorprender con diseños personales e innovadores cada temporada. El mundo y sus habitantes son su fuente de inspiración. La búsqueda de información es una de sus armas antes de ponerse delante de un papel en blanco y trabajar formas y colores.

TULAYTELMO
Tulaytelmo es una empresa alavesa dedicada a las artes plásticas y el diseño. Trabaja sobre distintos soportes y en especial desarrolla una línea de moda y complementos, con prendas únicas, pintadas a mano y utilizando distintas técnicas de impresión artesanales. Finalistas en el concurso Art and Fashion de Bilbao, ganadora de Muralia del año 2010 y del premio Blas Arratibel 2012. Este año ganadora del cartel de la III Feria Internacional DonostiArtean organizada por la Papelería Tamayo.

AGURITAL
Taller alavés de tocados y sombreros. Piezas únicas y exclusivas creadas minuciosamente de manera totalmente artesanal utilizando técnicas de alta costura. Creaciones para personas que buscan originalidad y complementos diferentes, aunando artesanía y vanguardia.

LA CANDELA
Licenciada en Bellas Artes, desarrolla sus colecciones de luminarias mediante diferentes procesos y técnicas de artesanía. Emplea papeles de fibras naturales, pigmentos, fragmentos vegetales y minerales, utilizando como soporte materiales específicos para pantallas, indicados para soportar el calor que genera la fuente de luz. El objetivo es encontrar una adecuada relación entre funcionalidad y estética.

*denboraldi bakoitzean diseinu pertsonal eta berritzaile harrigarriak merkaturatzea. Mundua eta bertako biztanleak dituzte inspirazio-iturri. Lanari ekin eta formak nahiz koloreak lantzen hasi aurretik informazioa bilatzea da haien sekretuetako bat.*

*TULAYTELMO*
*Arte plastikoetan eta diseinuan dihardUen enpresa arabarra da. Hainbat euskarri erabiltzen ditu, eta, bereziki, moda eta osagarriak garatzen ditu: jantzi berdingabeak, eskuz margotuak, hainbat inprimatze-teknika erabiliz. Bilboko Art and Fashion lehiaketako finalistak izan dira, eta 2010eko Muralia irabazi zuten, baita 2012ko Blas Arratibel saria ere. Aurten, Tamayo paperdendak antolatutako DonostiArtean Nazioarteko III. Azokarako kartel-lehiaketaren saria irabazi dute.*

*AGURITAL*
*Burukoen eta kapelen lantegi arabarra. Pieza berdingabeak eta esklusiboak, zehaztasunez sortuak, eskuz, goi-mailako joskintzako teknikak erabiliz. Originaltasuna eta osagarri desberdinak nahi dituzten pertsonentzako sorkuntzak, artisautza eta abangoardia uztartzen dituztenak.*

*LA CANDELA*
*Arte Ederretan lizentziaduna da, eta artisautzako zenbait prozesu eta teknika erabiltzen ditu luminariak sortzeko. Zuntz naturaleko paperak, pigmentuak, zati begetalak eta mineralak erabiltzen ditu, eta euskarri gisa, aldiz, pantailetarako material espezifikoak, argi-iturriak ematen duen beroa jasateko egokiak. Helburua: funtzionaltasunaren eta estetikaren arteko harreman egokia aurkitzea.*

JAVIER MURILLO
Con su excelente producción de réplicas de fauna silvestre a tamaño natural, desde una pequeña musaraña a un gran quebrantahue- sos en vuelo, Javier Murillo nos propone una alternativa a la taxidermia.
La imaginería naturalista está especializada en la representación realista de animales y de otros elementos naturales. Está orientada principalmente hacia la educación y la divulgación. Por su acabado minucioso y realista, estas réplicas son una verdadera alternativa a la taxidermia en el ámbito divulgativo o como señuelos en investigaciones de campo.

# ASISTENCIA, COSTES Y FINANCIACIÓN

La Feria espera contar este año con una asistencia en torno a 5.000 visitantes, repartidos en los tres días que permanecerá abierta (de viernes a domingo).

Los gastos totales para esta 38 edición de la Feria de Artesanía asciende a 38.000 euros.

En relación a la financiación, la mayor parte de los ingresos proceden de la recaudación de las entradas y el resto entre Diputación Foral de Gipuzkoa (Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo), Ayuntamiento de Errenteria y Kutxa Fundazioa.

*JAVIER MURILLO*
*Fauna basatiaren erreplikak egiten ditu tamaina errealean, bai satitsu txikienak, baita hegan doazen ugatz handienak ere. Erreplika horien bidez, Javier Murillok taxidermiaren alternatiba bat proposatzen du.*
*Imajinagintza naturalista animalien eta naturako beste elementu batzuen irudikapen errealistan espezializatuta dago, eta hezkuntzara eta dibulgaziora bideratzen da, nagusiki. Euren akabera zehatz eta errealistei esker, erreplika hauek taxidermiaren benetako alternatiba dira dibulgazioaren arloan, edo amu gisa erabil daitezke landako ikerkuntzaren arloan*

# *BISITARIAK, KOSTUAK ETA FINANTZAKETA*

*Aurten, hiru egunez egongo da zabalik Azoka, eta ostiraletik igandera 5.000 bisitari inguru izatea espero dute antolatzaileek.*

*Euskal Herriko 38. Artisautza Azokaren gastuen aurrekontua 38.000 eurokoa izango da.*

*Finantzaketari dagokionez, diru-iturri nagusia sarrerak dira, eta gainerakoa Gipuzkoako Foru Aldundiak (Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismoko Saila), Errenteriako Udalak eta Kutxa Fundazioak finantzatzen dute.*

# PREMIOS ARTESANALES DE LA FERIA

Como viene siendo habitual en los últimos años, la Feria de Artesanía del País Vasco de Errenteria concede dos galardones entre los talleres asistentes: el Premio a la Calidad del Producto Artesano y el Premio al Mejor Stand.

La entrega de los premios se efectuará el sábado 30 de abril a las 16:15 horas de la tarde y se comunicará oportunamente a todos los medios informativos el resultado del concurso y una breve reseña de los ganadores.

**Premio a la Calidad del Producto Artesano**: Se concede el premio a la mejor pieza presentada en base a los siguientes parámetros:

.- Investigación y experimentación, tanto en los materiales como en técnicas productivas.
.- Diseño e innovación de estilos. Utilidad
.- Calidad artística.
.- Maestría en la ejecución y acabado del artículo.

El premio será de 350 euros y diploma acreditativo y el jurado estará compuesto por profesionales de distintos sectores.

**Premio al Mejor Stand:** Se premiará al expositor que valiéndose de sus productos, ya acabados o en fase de elaboración y relacionados directamente con su especialidad, ofrezca el stand mejor conjuntado en función de su presentación y de su calidad estética.

El premio será de 350 euros y diploma acreditativo y el jurado estará compuesto por miembros especializados en decoración y escaparatismo.

# *AZOKAKO SARIAK*

*Azken urteetako legez, Errenteriako Euskal Herriko Eskulangintza Azokak bi sari banatuko ditu: Artisau Produktuaren Kalitatearen Saria eta Erakusmahai Onenaren Saria.*

*Sariak apirilaren 30an banatuko dira, larunbatean, arratsaldeko 16:15ean, Azokan bertan. Komunikabide guztiei emango zaie lehiaketaren emaitzaren berri, baita eskulangile irabazleei buruzko aipamen labur bat ere.*

**Artisau Produktuaren Kalitatearen Saria:** *Azokako pieza onenak jasoko du saria, parametro hauen arabera:*

*.- Ikerketa eta esperimentazioa, bai materialetan, bai ekoizpen-tekniketan*
*.- Diseinua eta estiloen berritasuna. Erabilgarritasuna*
*- Kalitate artistikoa*
*- Produktuaren lanketa eta akaberaren fintasuna*

*Saria 350 eurokoa izango da, eta diploma bat ere emango zaio irabazleari; hainbat arlotako profesionalek osatuko dute epaimahaia.*

**Erakusmahai Onenaren Saria:** *erakusmahairik onena osatzen duenari emango zaio, eta aurkezpena eta kalitate estetikoa hartuko dira kontuan. Erakusmahaia atontzeko, nork bere lehengaiak edo produktu bukatuak erabili beharko ditu, edo prestatze-fasean daudenak ere izan daitezke, baldin eta bere espezialitatearekin zerikusi zuzena badute.*

*Sari gisa 350 euro eta diploma jasoko ditu irabazleak, eta dekorazioan eta erakusleihoen dekorazioan espezialista diren profesionalek osatuko dute epaimahaia.*



Juan de Olazabal kalea, 23
20100 Errenteria
Tel/Fax: 943 52 65 53

eskulangintza@ereintza.com
www.ereintza.com
www.artiola.org

# INAUGURACIÓN

Para el acto de inauguración que se celebrará el viernes 29 de abril a las 12:00 del mediodía y podrán asistir con sólo presentar la invitación que se adjunta.

En la misma tienen previsto asistir entre otros:

• Ainhoa Aizpuru Murua (Diputada del Departamento de Promoción Económica y Medio Rural)
• Julen Mendoza (Alcalde de Errenteria)
• Otras autoridades locales y provinciales, así como responsables de entidades colaboradoras.

Tras la apertura oficial, las autoridades recorrerán los diversos stand que componen esta nueva XXXVIII edición.

Igualmente en este acto se hará entrega del premio al ganador del "III Concurso de Carteles XXXVIII Feria de Artesanía Ereintza del País Vasco" que por tercera vez ha organizado Ereintza para elegir el cartel anunciador de la feria.

# *INAUGURAZIOA*

*Inaugurazio-ekitaldia apirilaren 29ean izango da, ostiralean, 12:00etan; bertara joateko nahikoa izango duzue honekin batera doan gonbidapena aurkeztea.*
*Bertan izango dira, besteak beste, honako hauek:*

• *Ainhoa Aizpuru Murua (Ekonomia Sustapeko, Landa Ingurumeneko eta Lurralde Orekako Diputatua).*
• *Julen Mendoza (Errenteriako alkatea).*
• *Tokiko nahiz probintziako beste agintari batzuk eta erakunde laguntzaileetako arduradunak. Irekiera ofizialaren ondoren, XXXVIII. edizioko e-rakustokiak bisitatuko dituzte agintariek.*

*Horrez gainera, ekitaldi horretan jasoko du saria "XXXVIII. Euskal Herriko Ereintza Eskulangintza Azokaren III. Kartel Lehiaketaren" irabazleak. Ereintza Elkarteak hirugarren aldiz antolatu du sariketa hau, Azokarako kartela aukeratzeko.*

## *www.ereintza.com eta www.artiola.org*

Dentro de la página web www.ereintza.com, la Feria de Artesanía dispone de información completa y actualizada del desarrollo de la Feria.

## *www.ereintza.com eta www.artiola.org*

*Gure web-orrietan (www.ereintza.com eta www.artiola.org) Eskulangintza Azokari buruzko informazio osatua eta eguneratua eskainiko dugu Azokak iraun bitartean.*

EREINTZA elkartea

artiola

Juan de Olazabal kalea, 23
20100 Errenteria
Tel/Fax: 943 52 65 53

eskulangintza@ereintza.com
www.ereintza.com
www.artiola.org

# RECINTO FERIAL • ACCESOS

## RECINTO FERIAL

El recinto ferial estará instalado como en años anteriores en la sala "Jose Luis Caso Aretoa" del Centro Cultural Merkatuzar, antiguo Mercado Municipal de Errenteria.
El espacio total disponible para la 38 edición, será de 1.100 m2 aproximadamente.

## ACCESOS

Queremos recordar asimismo que la mejor manera de acceder al recinto ferial para todas aquellas personas que nos visiten de la provincia es en los transportes públicos ya que tanto el tren RENFE, como el topo EUSKO TREN, así como las líneas de autobuses de EKIALDEBUS (a OIARTZUN y PASAI DONIBANE e IRUN-HONDARRIBIA tienen parada a escasos metros de la calle Pablo Iglesias (Merkatuzar). Concretamente la estación de EUSKO TREN (Topo)de Errenteria está junto al recinto ferial.
No obstante la organización colocará carteles indicativos del recinto ferial, desde las paradas de los transportes públicos.

# *AZOKA-BARRUTIA •SARBIDEAK*

## *AZOKA-BARRUTIA*

*Erakustazoka, aurreko urteetan bezala, "Jose Luis Caso" aretoan egongo da, Merkatuzar eraikinean (Errenteriako Udal Merkatua izan zena). Beraz, 38. edizio honetarako, 1.100 m2-ko eremua izango dugu, gutxi gorabehera*

## *SARBIDEAK*

*Bestalde, gogoratu nahi dugu probintziatik da- torren jendearentzat azokara bertaratzeko mo- durik egokiena garraio publikoa dela; izan ere, RENFEko trenak, EUSKO TRENeko topoak eta EKIALDEBUSeko (OIARTZUNERA eta PASAI DONI- BANERA eta IRUN-HONDARRIBIA) autobus-lineek geltokia dute Pablo Iglesias kaletik (Merkatuzar) hurbil. Azpimarratzekoa da EUSKO TRENek Errenterian duen geltokia Azokaren pa- rean dagoela.*
*Nolanahi ere, antolatzaileek azoka non dagoen adierazteko kartelak ipiniko dituzte garraio publikoen geltokien inguruan.*
*Nolanahi ere, antolatzaileek azoka-barrutiaren berri emango duten kartelak ipiniko dituzte garraio publikoetako geltokietatik.*


Juan de Olazabal kalea, 23
20100 Errenteria
Tel/Fax: 943 52 65 53
eskulangintza@ereintza.com
www.ereintza.com
www.artiola.org

## ENTREVISTAS

Para terminar queremos lanzar un ruego a los medios de comunicación y a las instituciones, para que hagan más visible la artesanía vasca apoyando la divulgación de este tipo de eventos, de manera que deje de ser la hermana pobre entre los sectores económicos del País.

Si desean concertar una entrevista con personal de la organización deberán ponerse en contacto para concretar la hora y el lugar en los teléfonos: **679197669 / 666720010**

Entre las personas que tienen disponibles para sus entrevistas:

Jone Idiazabal Garmendia

## *ELKARRIZKETAK*

*Azkenik, hedabideei eta erakundeei eskari bat egin nahi diegu: euskal artisautza ezagutzera eman dezatela honelako ekimenen berri emanez, Euskal Herriko sektore ekonomikoen 'ahizpa txi-roa' izateari utz diezaion.*

*Antolatzaileei elkarrizketa bat egin nahi izanez gero, deitu telefono hauetara, hitzordua eskatzeko:* **679197669 / 666720010**

*Pertsona hauek elkarrizketa ditzakezue, besteak beste:*

*Jone Idiazabal Garmendia*



Juan de Olazabal kalea, 23
20100 Errenteria
Tel/Fax: 943 52 65 53

eskulangintza@ereintza.com
www.ereintza.com
www.artiola.org